

Galdera

Sukaldean janaria prestatzen aritzea nola esan daiteke modu egokian, **sukaldatu** edo **kozinatu**?

Erantzuna

kozinatu aditz jatorra da, eta tradizioa du euskal letretan.

***sukaldatu**, aldiz, aditz berri-berria da, ez du tradiziorik, eta *sukalda* hitzik ez denez, ezin da horren gainean hitz eratorririk sortu (*sukalda* + *-tu*). Euskal itxurako erdal kalkoa da.

Beste esapide batzuk: **janaria prestatu/egin/gertatu/maneatu**; **sukaldean egin**

1/ Euskaltzaindiaren Hiztegia:

kozinatu, kozina, kozinatzen

du ad. Janariak beroaren bidez prestatu. *Badakizu, jauna, nik ez dakit kozinatzen.*

2/ Orotariko Euskal Hiztegia:

kozinatu

(*VocBN* , H), *kuzinatu* (-iñ- Chaho).

Cocinar. "Faire la cuisine, préparer les mets" *VocBN* .

Ogi ta lixua egíten, kozinátzen, ta gañarákoak. LE Prog 118. *Bérze milla zébo kozinatzen dire luxuriarén sutégian.* LE (in BOEanm 560). *Badakizu, jauna, nik ez dakit kozinatzen.* Larre ArtzainE 275.

Erreferentziak eta laburdurak:

<i>VocBN</i>	A. Salaberry. <i>Vocabulaire des mots basques bas-nabarrais</i> 1857
H	M. Harriet (Haltsu, 1814-1904). Eskuz idatziriko hiztegia, 1890 ingurukoa
Chaho	J. A. Chaho (Atharratze, 1810-1858). Haren hiztegiari dagokio, 1855
LE	J. Lizarraga (Elkano, 1748-1835)
Prog	Kristau bizimoduari buruzko eskuizkribua, 1780
BOEanm	Bonaparte ondareko eskuizkribuak: hegoaldeko goi-nafarrera
Larre	E. Larre (baigorri, 1926-2015)
ArtzainE	<i>Ene artzain-etxolak</i> , 2001

3/ Elhuyar Hiztegia:

eu-es

kozinatu, kozina, kozinatzen

du ad. cocinar

plater hori askotan kozinatu du etxe koentzat: ese plato lo ha cocinado muchas veces para los de casa

plater kozinatua: plato cocinado

es-eu

cocinar

v.intr. janaria prestatu/egin/gertatu/maneatu; kozinatu; sukaldean egin

hoy cocino yo: gaur neuk prestatuko dut bazkaria

solo cocino para los de casa: etxe koentzako bakarrik egiten dut sukaldean